

## EUSKARARAKO HIZTEGIA

Azken urteotan izugarrizko liburu sorketa eta ugalketa izan dugu euskaraz. Direla urte batzu pentsatu ere egingo ez genuen adinekoa. Batez ere, etengabeko ugalketa izan dute testu liburuek, berauen osagarri diren irakurgaiak (ipuinak eta abar) barru direlarik.

Hiztegi alorrean ere, euskara ikasteko metodoak eta ugalduz eta berriztatuz joan diren neurrian, ugalketa handia (batzuren ustetan inflaziora heltzen dena) nabari da bazterretan, era ezberdinetakoak, handiak eta txikiak, kaleratu direlarik.

Hala ere, alor honetan hutsune bat, euskaldunontzat euskaraz eginiko hiztegiarik eza, hots, inguruetako hizkuntz normalizatuetan hain ugari argitaratuak agiri diren eratakoen gabezia nabari zen, hitzen bati buruz edozein zalantza sortzen zitzaigunean kontsulta erderaz egin beharrean aurkitzen ginelarik.

Alor honek, ia inork jorratu gabe iraun du orain arte. Egin ere, *Batasunaren Kutxa* kaleratu zenetik, oraintsu atalka argitaratzen hasia den Ibon Sarasoraren *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia* arte ez da ezer egin hutsune hori betetzeko, maiz bazterretan premia larria ikusi izan baldin bada ere.

Une honetan argitaletxean, laster kaleratua izateko bidean, aurkitzen da *EUSKARARAKO HIZTEGIA* deituko den hiztegi mardula. Euskaldunok, alor honetan dugun premia larriari behin-behineko erantzuna ematera datorkigun hiztegi berria.

Bidezkoa deritxot KARMEL aldizkari honetako orrietan hiztegi horren lehen berria ematea egileetarik hiru aldizkari honetako idazle garelako. Euskararako hiztegi horren berriak, beraz, labatik atera berri den opil gozo gisa eskaini nahi dizkizuet aldizkari honetako irakurleoi interesgarri egingo zaizkizuelakoan.

### **I.- Sorrera**

Oso gauza gutxi izan ohi dira, bat-batean, ustekabeen sortzen direnak. Eta horiek ere, jeneralki, luzaroko egosketa izan ohi dute norbaiten asmoetan. Hiztegi honek ere, ba dauka bere historia laburra, hain zuzen, geroago aditzera emango ditugun zenbait daturen argibide den historiotxoa.

Direla lau urte, hiztegi berri hau burutzen aritu den taldeko lau kidek *Sinonimoen hiztegia* Durangoko azokan aurkeztu genuenean, Euskadi Irratirako izan genuen elkarrizketan behin eta berriro aipatu zen honelako hiztegi baten falta larria.

Egia esan, taldekide gehienok euskarako eskolak ematen ibiliak izanik, lehendik ere ezaguna genuen halako hiztegi baten premia. Nork noiz egingo itxaroten geunden lan astunegia iruditzen zitzaigun geure gain hartzeko eta. Une hartan, gainera, ez genekien zer nolako erantzun ona izango zuen euskara hutsez argitara emanberri genuen gure *sinonimien hiztegiak*.

Bestalde, une hartan, aitortu egin behar, ez genuen halako lan neketsu batetan berriro buru-belarri sartzeko gogo handirik, nahiko nekatuta bukatu baikenuen burutu berri genuen lana. Hasiera batetan, beraz, alde batera utzi genuen asmo hori beste norbaitzuk arituko ziren esperantzan.

Hala ere, argitaratu berri genuen hiztegiaren gorabeherak zirela bide, bilerak egiten jarraitu genuen eta, aldi luze samarra iragan zenean, beste zerbait egiteko kilikadura sentitu genuen barruan.

Hasieran, besterik beste, proba gisa edo, taldeko batzuk *Sinonimoen Hiztegiari* definizioak ezartzen hasi ginen, hiztegi hori

definizio eta guzti eskainiz erabilgarriagoa eta onuragarriagoa egingo genuelakotan. Oso lagungarri izan genuen, gerora, saio gisa egindako ahalegintze hori!

Horrela, oraindik zehatz-mehatz zer egin erabaki gabe ari ginela, definiziozko euskal hiztegi arrunt erabilkor bat egiteko eskaria edo proposamena jaso genuen. Halako lan luze eta sakonak zituen gorabehera ugariak astiro aztertu eta beste inor ez zebilela lan berdina egiten, epe laburrera argitaratzeko asmotan, behintzat, jakin ondoren, lanari ekitea erabaki genuen.

Halako lanak ekarriko zigun nekea eta erantzunkizuna kontutan hartuz, taldeko kideak ugaritzera jo genuen, guztitara jarraiko seirok: Gotzon Aurrekoetxea, Rikardo Badiola, Luis Baraiazarra, J. Luis Goikoetxea, Txomin Solabarrieta eta nik, Patxi Uribarrenek osoturiko talde eginez. Taldeko kideok alde aurretik ezagunak izateak trinkotasuna eta egokitasuna eman zion taldeari. Denok, gainera, euskal giroan hainbat lan burutuak ginenez gero lanerako prestuak aurkitzen ginen.

Horrela, besterik gabe, jo eta ke ekin genion lanari direla bi urte, noiz amaituko genuen ziur jakin gabe, baina ahalik eta epe laburrenera egiteko asmotan. Orain buruta dugu lan hori laster argitaratzeko bidean.

## II Metodologia

Honelako lanetan egin ohi den bezala, lehen urratsa hiztegiaren ingurua oso ongi zehaztea edo tautzea izan zen. Hasieratik bide egokia hartu eta helburuak zehatz argitu beharra genuen. Hori zela eta, alor honetan, esan bezala, oraindik bideak ia urratu gabe genituenez, lanean ahaleginetan hor-hemenka alperrik ez aritzeko, argibideak hartu eta kontsultak egin ondoren, hurrengo pausok eman genituen:

1. a) *Helburuak finkatzea.* Lehen eta behin zer nolako hiztegia eta nortzuentzat eginga behar genuen zehaztu eta finkatu beharra zegoen. Gure helburu-nagusia premiari erantzutea izanik, euskara ikasten zein sakontzen. bai ikastoletan bai adine-

koentzako euskaltegietan, ari zirenentzat egitea erabaki genuen. Inguru zabala eta, era berean, mugatua eskuhartzen genuen, bada Horrek, bide batez, definizioak ematerakoan ahalik eta euskara errazena eta ulerkorrena erabiltzera behartzen gintuen. Bide honetatik ekin diogu lanari.

2. a) *Sarrera-hitzak aukeratzea.* Hiztegiaren hartzaileak eta beraien premiak zehaztu ondoren, hiztegiaren agertu beharreko hitzen zerrenda egitea zeterren, azken batetan honelako hiztegi baten erabilkortasuna egile-erabiltzaileen arteko lotura egoki sortzean baitago. Hitzak aukeratzeak guk uste genuen baino aldi luzeagoa eskatu zigun eta nahiko nekagarri bihurtu ere bai. Hain zuzen, jarraian aipatzen diren iturri guztiak bildu, aztertu eta bateratzea bakarkako/zein taldekako hainbat orduren ondorio izan da.

Iturriak aurkezterakoan ikusiko denez, hitzak aukeratzera-koan maiztasunaren erizpideari jarraitu diogu, gehien erabiltzat jotzen diren hitzei lekua eginez.

3. a) *Iturriak.* Hiztegirako hitzak aukeratu eta zerrenda osotzerakoan, nortzurentzat den hiztegia gogoan genuela jokatu genuen. Hori zela eta, hitzen iturriak *hiru fasetan* bildurik agiri zaizkigu, zerrenda, premiatasunaren arabera, osotuz.

*1. fasea:* gorago aipaturiko pertsoneri (ikastolakoei eta ikasten zein sakontzen ari diren adinekoei) erantzuteko nahitaez sartu beharreko hitzen bilketa. Fase honetan jarraiko iturriok erabili izan ditugu:

-AEK-k argitaratutako hitz-zerrenda (2.000 hitz)

-HABE-k argitaratutako hitz-zerrenda (3.000 hitz)

-HITZ EGIN-en erabiltako hitz-zerrenda (5.500 hitz)

-Euskaltzaindiaren oncritziak *Euskarari* argitaratua izan zen «Zortzi urte arteko ikastola hiztegia»

-ESKOLAURRE-LEHEN ZIKLOA-n datozen hitzak.

-ERDIKO ZIKLOKO EUSKARAREN PROGRAMAKUNTZA

-D eremuan datozen hitzak.

-ERDIKO ZIKLOKO EUSKARAREN PROGRAMAKUNTZA

-B eremuan datozen hitzak.

-DICCIONARIO BASICO ILUSTRADO (zerrenda + husketa: 4.000 hitz)

-LEHEN PRESTAERA (1,2,3,4) Ibon Sarasolak prestatua. Hautaketa bidez

-SINONIMOEN HIZTEGIA. Hautaketa bidez

Iturri guzti horiek bateratuz 6.700 sarrera-hitz desberdin lortu genituen, kopuru hori osatzeko hurrengo fasean jartzen diren iturrietakoak gaineratuz:

2. fasea: aurreko iturrietatik bildutakoaren ondorioak ikusiz, sarrera-hitzen kopurua ugaltzera jo genuen. Horretarako, lehen erabilitako erizpidez gainera, beste bi berri sartu genituen:

a) euskalkiei benetako presentzia ematea, euskalki barruko eremu zabalean erabiltzen diren hitz orokorrei sarrera eginez

b) bitzta modernuaren premietarako beharrezkotzat jotzen diren zenbait hitz maileguri lekua egitea.

Guzti hori burutu ahal izateko, jarraian ezartzen diren iturriok erabili genituen:

-UZEI-k ikastoletako 225 liburutan eginiko huskotatik ateratako zerrenda (gure zerrendan bakarrik 7 aldiz, gutxienez, agertzen direnak sartu ditugu)

-HIZTEGIA 2.000tik hautatuak (taldeko bakoitzak sartzekotzat jo eta taldean egokitzen eman zirenak)

-ZAMARRIPAK eta MANTEROLAK dakartzaten bizkaiko hitzen zerrendak

-BIZKAIKO ELEIZ LIBURU BATERATUETAN (mezako egunerokoa eta igandeetako irakurgaiak) husketa zehatz bidez lortutakoak

-IPARRALDEKO ELEIZ LIBURU BATERATUETAN (mezako egunerokoa eta igandeetako irakurgaiak) husketa bidez lortutakoak

-AZKUEREN HIZTEGITIK eginiko hautaketa (Iparraldean zein Bizkaian orokorrak direnak bilduz)

-ELIZEN ARTEKO BIBLIAN (Euskal Herri osorako euskalki ezberdinetako artean argitaratua) dakarren zerrenda.

Horrela, zerrenda ugartzeaz gainera, bazterretako euskalkiei (Bizkaierari eta Iparraldekoiei) leku zabala egin diegu, beti ere batasuna lortzen saiatuz. Zenbait hitz kanpo geratu baldin badira, aditzera ematen dituzten kontzeptuek hiztegian tokirik ez dutelako izan da.

Aurreko iturriak erabiliz hainbatetan ugaritu zen hitzen ze-

rrenda, 11.100 sarrera-hitz desberdin izateraino. Kopuru hau lortu ondoren, besterik gabe, definitze lanari ekin genion, nahiz eta oraindik guztiz burutu gabe izan zerrenda osoa. Osotasuna azken fasean sartutako bidez lortu genuen, bertan sartu baitziren definitzen erabili behar izan genituen hitzak.

3. fasea: Osagarritzat jo izan genuen fase hau burutzeko, zabaldu egin genituen hainbatetan erizpideak hitz maileguei toki zabalagoa emanaz. Eguneroko bizitza euskaraz egiteko nahitaezko ditugun hainbat hitzi egin genion lekua. Horrela, zerrenda ere irekiagoa atera zaigu, erabilitako iturriak ezberdinoak eta teknikoak izan diren adinean. Jarraiko iturriok erabili ditugu:

-UZEI-k argitaratutako zenbait hiztegitik lortutako hitz-zerrenda orokorra, bereziki administrazio bizitzari (Administrazio, Finantza, Legegintza,...) zuzenki dagokiona. Bestelako hiztegietatik laburpenak egin dira.

-Kirol alorreko oinarriko zerrenda orokor hautatua

-Gainbegiraketa egiterakoan Xabier Mendigurenek proposatutako hitzen zerrenda.

-Definizioak egiterakoan, zerrendan agiri ez eta nahitaez, gaiak hala behar-tuz, sartu izan ditugun hitzen zerrenda.

Azken fase hau amaitzerakoan osoturiko zerrendak 13.300 sarrera-hitz izan ditu, hasierako zerrendak ugalketa handia lortuz.

4. a) *Sarrera-hitzak definitzea.* Hau dugu hiztegiaren ezaugarriarik nabariena eta bereziena. Eta baita ere ahaleginik handiena ekarri diguna. Sarrera-hitz bakoitzaren esangura bakarra zein anizkorra zehazki aditzera emateak hainbat buruhauste sortu digu, uste den baino zailagoa baita zenbaiten definitzioa ematea.

Alor honetan, gainera, urratsez urrats jokatu dugu hasieran denon artean erizpide bateratsu batzu ezarri ondoren:

*Lehenengo:* bakoitzak, hartutako erizpideen arabera, zerrendako atal batetako hitzak ahalik eta zehatzen definitu, adibiderik edo sinonimotik behar zenean gaineratuz.

*Hurrengo:* bakarka eginiko definizioak taldeko beste kide birekin

ezdabaidatu, zer zuzendu izanez gero hala egiteko, zalantza handiak taldekide guztien artean erabakitzeke utziz.

*Azkenik:* taldeko hiruren artean definizio guztien azterketa orokorra egin, idaztankerari bateraketa ematen saiatuz.

Definizioak egiterakoan, ostera, gaur egun inguruetakoz hizkuntzetan erabili ohi diren hiztegi ezagunenak hartu ditugu gida-liburutzat, kasu bakoitzean definizioerik egokiena eskaintzeke, azken aukera nor bere esku izanik. Hala ere, esan bezala, azkenean taldekide gehienek ontzat emandakoa gairiditu izan da.

5 a) *Gainbegiraketa, zuzenketa, orrazketa*

a) *Gainbegiraketa.* Honela taldean lan bat egiteak, erizpide ezberdinetako pertsonak bateratzeak dakartzan abantailekin batera, eragozpen batzu ere sortzen ditu, hots, lana ongi koordinatzeak eta lan bateratsua berezkoak izan ohi dituenak.

Taldekide denok, ahalik eta erakarpenik ugari egin arren, talde lanerako hartutako erabakietara geure buruak makurtu beharrak eraginda, sarritan ikuspegi itxiegiz jokatzeko arriskua izan dugu.

Eragozpen hori zuzendu eta, bide batez, taldeetik kanpoko norbaiten erizpidea ere jaso ahal izateko, honelako lanetan oso ohitua den Xabier Mendigurengana jo genuen gainbegiraketa eske. Horrela, hutsune batzu osotzeaz gainera, ikuspuntu berriak jaso eta lanari borobiltasun handiagoa eman ahal izan diogu.

b) *Zuzenketa.* Esan bezala, nor bere atala egin ondoren, lan dena beste taldekide biren eskuetatik iragan izan da, heurok eginiko oharrek ezdabaidatu ondoren behin-betiko definizioa finkatuz.

Horretaz gainera, lan osoa burutua izan da gero, batasun handiagoa emateko, berriro aztertu dituzte hiru taldekidek definizio guztiak hiztegiari osotasuna emateko asmoz. Horrela, errepikapenak, desegokitasunak, definizioa kontrajarriak eta abar baztertu ahal izan dira, egindako lana hainbatetan habe-

tuz.

c) *Orrazketa*. Atal hauek neurri batetan aurrekoari loturik baldin bada ere, ba du aparteko zerik, hots, materiale osoa inprimategirako zehazki, idazkeran erizpide bakarra erabiliz prestatzeak dakarrena. Hainbatetan lan mekanikoa baldin bada ere, oso garrantzitsuak jo dugu hiztegiek beti hizkuntz eredu eskaintzen dutelako.

Bestalde, halako materiale ugaria era ordenatuz eta txukun aurkezteak erabiltzeko erraztasuna sortzen du. Orrazketa oso eta sakon baten bidez lor daiteke, gainera, bakarrik, hiztegiak eskatzen duen egokitasuna burutzea.

6. a) *Irudiak*. Ikusentzunezko komunikabideen garai honetan, zeresanik ez, garrantzi handia hartzen dute irudiek. Gure kasu honetan, behar bada, gehiago oraindik, oso antzerakoak diren gauzak definitzerakoan. Askotan, ahalegin handiek egin arren, ematen ditugun definizioak ez dute guk nahiko genukeen adina argitasun eskaintzen, zehaztasuna eta ulertortasuna egoki bateratzea oso zaila izaten delako edo.

Hori dela eta, ikusbidezko definizio bezala, irudien laguntza eskaini nahi izan diegu hainbat hitzi. Irudiok, dena dela, gaika sortaturik bildu beharrean izan gara, bestetara egiteak (hitz bakoitzari ondoan bere irudia ezartzeak) inprimategian hainbat arazo sortzen dituelako.

Irudiok, bereziki, landara, animalia, arrain, tresna,... ezberdinen arteko bereizketei argi egiteko asmoz eginak izan dira, era errazean eta hogeita hamairu orritan bilduta datoztelarik.

### III. Hiztegi barruko banaketa

Hiztegia zein metodologia erabiliz eginga izan den ikusi ondoren, azal dezagun gaindiroki baldin bada ere nola aurkezturik agiri zaigun.

Lehen eta behin oso liburu mardula, gutxi gorabehera



900/1.000 orrialdekoa, izango dela esan behar. Materialea bi hiru zati nagusitan bananduta eskaintzen da:

1. *zatia*: Hiztegiaren zatirik nagusia eta garrantzitsua bai maiz bai luzeraz, hots; hitzen definizioak ematen dituena. Zati honetan jarraiko eran jokatu da:

- a) *Sarrera-hitza* letra beltzez errazago bereizteko.
- b) *Definizioa* sarrera-hitzaren esanahia/k aditzera emanaz.
- c) *Adibidea*, kasu batzutan bakarrik, hitzari argitasuna emateko egokitzen jotzen denean.
- d) *Sinonimoa*, kasu batzutan bakarrik, ulerkortasuna ematen dionean.

Adibideak:

**Abade:** kristau erlijioan Jainkoaren hitza aldarrikatzen duen eta sakramentuen ospakizunetan gidari den pertsona sakratua. Apai-za.

**Abadetza:** abadeei dagokien erakunde zein ministraritza.

**Abadagune:** zerbaitetarako aukera-aukeran datorren une egoia: *haurrak lotaratu dituenean dauka etxeakoandreak giro lasaian irakurtzeko abadagunea*. Egokiera, eretia, modua.

**Abar:** meheak diren zuhaitz adarrei deitzen zaie gehienetan: *abar batzu bilduko ditugu sua egiteko*. 2 kondar edo zaborrak: *pinadia moztean abarrez beterik utzi zuten basoa*. 3 eta abar: aipatzen diren elementuen zerrenda oraindik luza daitekeela adieraziz, eskuarki «*etab.*» laburduraz ematen dena.

**Abaraska:** erleek ezta ezartzeko argizarizko moldeetan gelatxo hexagonalez eginiko eraikintza.

2. *Zatia*: (lehen eta hirugarren zati nagusi bien arteko lokarri eta banaketa gisa jarria). Zati honetan zenbait euskal esaldi jator eskaintzen dira. Definizioak zehazterakoan hitzek sarri hartu ohi dituzten esanahi bereziak alde utzi beharra izan dugunez, horietako zenbait, era apal batetan baldin bada ere, jaso ditugu zati honetan hizkuntzaren barruko aberasbide agortezinen eredu gisa aurkezteko.

Besterik beste, hitzek historian zehar hartzen dituzten esanahi ezberdinak (hizkuntzak biziak direnez, etengabe ari dira aldatzen eta berriztatzen) ezin direla muga estuetan sartu eman nahi digute aditzera.

3. *Zatia*: zati honetan (eranskin gisa jartzen da) euskarako hitzek inguruetakoko hizkuntza eraginkorrenetan dituzten parakideak eskaintzen dira. Nahiz eta hizkuntzen artean parekidetasun oso-osorik izan ez baliabide gertatzen zaizkigu halako parakidez errendak inguruetakoko hizkuntzak ikasteko zein izulpenak egiteko.

Euskararen mugakide diren gaztelaniaren eta frantsesaren ondoan ingelesa ezartzen da, egun munduan zehar nazioarteko hizkuntzen artean erabiliena bilakatu delako.

Beti ere, esan bezala, zati hau eranskin gisa eskaintzen da edozein hitzek barru duen kontzeptuaren esanahia jakiteko lehen zatiko euskarako definiziora joan beharra delarik.

Era berean, horrela eginez, euskaldunok gaztelaniaren premiarik gabe frantsesera zein ingelesera eta alderantziz itzulpenak egiteko tresna izan dezakegu. Hizkuntzak ikasten ari diren euskaldunei ere, euskaratik ikasten ari den hizkuntzara bitartekorik gabe, aldatzeko bide ematen zaiola uste dugu.

#### Adibideak:

**Gaztainondo:** *g* castaño *f* chataigner *i* chestnut (the tree)

**Gaztanbera:** *g* requesón *f* fromage blanc *i* cottage cheese

**Gehi(tu):** 1 *g* añadir *f* ajouter *i* to add  
2 *g* aumentar *f* augmenter *i* to increase

**Añadir:** gehi(tu)

**Aumentar:** gehi(tu)

**Castaño:** gaztainondo

**Requesón:** gaztanbera

**Ajouter:** gehi(tu)

**Augmenter:** gehi(tu)

**Chataigner:** gaztainondo  
**Fromage blanc:** gaztanbera

**To add:** gehi(tu)

**To increase:** gehi(tu)

**Chestnut:** gaztainondo

**Cottage cheese:** gaztanbera

Aurkezpen hau laburtu beharrak hainbat zehaztasun aditzera eman gabe ustera bultzatzen nau. Hiztegia eskuratzeko duzunean, zuk, zeure kabuz, ikusi ahal izango dituzu. Besterik ez.

*Patxi Uribarren*